[b]
BARREN
ELGOIBARKO ASTEKARIA

610. zkia.
XV. urtea
2007ko apirilaren 20a



## Etxebizitzak Elgoibarren

# Beharra ala negozioa?

[ KILIBARREN ] PRAILE HAITZ • [ KULTURA ] KIRIBILKA

RENAULT servicios

Gelditu ez zaitezen mugitzen gara



## MUNTATZEA ETA OREKATZEA DOAN

| NEURRIAK | Michelin | Continental | Dunlop |
| --- | --- | --- | --- |
| 155/80 R13 79T | 52,23 € | 46,86 € | 46,33 € |
| 165/65 R14 79T | 68,66 € | 58,58 € | 56,92 € |
| 165/70 R13 79T | 64,77 € | 54,61 € | 54,38 € |
| 175/65 R14 82T | 78,88 € | 75,40 € | 71,34 € |
| 175/70 R13 82T | 66,14 € | 66,41 € | 63,30 € |
| 185/55 R15 82H | 122,86 € | 97,42 € | 111,90 € |
| 185/60 R15 84H | 114,26 € | 109,62 € | 97,44 € |
| 185/65 R15 88T | 92,13 € | 77,67 € | 76,45 € |
| 195/65 R15 91H | 107,88 € | 103,82 € | 98,60 € |
| 195/65 R15 91T | 102,59 € | 84,19 € | 85,74 € |
| 205/55 R16 91V | 149,35 € | 143,26 € | 146,16 € |
| 205/55 R16 91H | 159,09 € | 116,47 € | - |
| 205/60 R16 92H | 142,45 € | 140,36 € | 139,20 € |
| 225/45 R17 94W | 208,97 € | 196,08 € | 209,83 € |
| 165/70 R14C 85R | 109,62 € | 93,96 € | 99,76 € |
| 195/65 R16C 100T | 134,72 € | 131,08 € | 124,12 € |
| 225/65 R16 112R | 215,76 € | 161,24 € | 172,84 € |

www.mantenimiento.renault.es

**Fidagarritasunak bide bat baino ez du**

**Orain, pneumatikoak aldatzean**

**OREKATZEA ETA LAN ESKUA DOAN.**

"Eta oparitzat, R27"aren posterra. Munduko txapelketa bi irabazi ondoren.

**PNEUMATIKOEN 4X3 ESKAINTZA** MICHELIN

EXPO ZARAGOZA 2008

RENAULT

**AUTOBERRI**

Poligono Olaso, 17.- Tel. 943 74 27 55 - ELGOIBAR

ARRASATE - AZPEITIA - IRÚN - TOLOSA



# ELGOIBAR BH INSTITUTUA 2007/08 IKASTURTEA

**Elgoibarko Institutua**

Arregitorre, 2

Tel.: 943 74 80 19

E-posta: bulegoa@elgoibarbhi.net

www.elgoibarbhi.net

**BATXILERREKO ESKAINTZA**

- Natur eta osasun zientziak
- Giza eta gizarte zientziak
- Teknologikoa

Aurrematrikulako datak:

apirilaren 23tik

maiatzaren 4ra



Euskadi 2004

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



# ZOZOAK BELEARI...



**Alain Ulazia**

Zozomikoteak pasa dira Alaitz. Martxoak apirilari kendu zizkion egun biak. Horrelaxe kontatu zidan zozomikoteen kondaira orain gutxi amona batek, eta berari horrela kontatu ziotela kontatu zidan:

"Apirila ailegatuta, artzainak barre egin omen zion neguari, negu txepela izan zela hura, bere artaldeak iragan behar zuen errekastoaren ur eskasiari begira. "Neure ardirik makalenak salto bakarrean pasa lezake barren erreka!", esan omen zion neguari. Orduan, instante hartan bertan, haserretuta, martxoak bi egun eskatu zizkion apirilari eta bengantza moduan izugarrizko ekaitza sortarazi; kristoren uholdeak izan omen ziren. Eta jakina, artzainaren artaldea han eraman zuten urek haran behera. Ez hori bakarrik, ahariak, bere onetik aterata eta asaldatuta, artzaina begian jo eta itsu laga zuen begi batetik."

Euskal kondairak horrelakoak direla esan zuen sasijakintsu batek, misteriotsuak, bukatugabeak, antzinatik egin duten bidean eskeleto hezur batzuk galdu balituzte lez. Ez nago ados. Amona honi entzule batek moztu egin zion kontaketan zehar, "hor zerbait ez al zaizu ahaztu?". Eta amonak egoskor ezetz, berari hala kontatu ziotela. Izan ere, amona kontatzen ari den bitartean txaman bat da, iragana eta orainaren arteko zubi, iragana garraiatzen duen hodi huts bat, hitzari eta bere zehaztasunari errespetuz josia.

**«Amona kontatzen ari den bitartean txaman bat da»**
Alain

**«Txamanaren kobaren arrastorik ez dugu aurkitu»**
Alaitz

**Alaitz Vives**

Zozomikote... zozoBIKOTE bai gu, Alain. Denboraren etengabeko harian hitzegiten ziguten ahotsak galdu ditugulako.

Erlauntzak hustu egin dira. Badakizu? Migrazioa ala exterminioa. Migrazioaren teoriaren alde egin duen zientifiko taldeak sinposioa antolatu du Errekabarreneko Zubipean; "lore goxoagoak mugaz bestaldeko supermerkatuetan" izenburupean banner berria jarri dutela websoroan promozio baten berri emanez: polenektar-k6-aktibitas ofertan. Seiko pack-a erosiz gero, antenak lixatzeko espuma erregalo. Merkatu birtualaren deiari ezin muzin eginda, erleek banner-atea zeharkatu dute eta aio... aizu, akabo eztiaren eztia! Exterminioaren aldekoek ostera prentsa ohar batean azaldu dute euren teoria. Udaberri egunean erleetako batek GPS berria erosi zuela adierazten duen erosketa-tiketa aurkitu dute. Hortik aurrera zer gertatu den jakitea ez omen da gauza zaila. Kukupraken zelaira GPSak lagunduta nola iritsi zitezkeen denek egin omen zuten aproba eta itxuraz, inork ez zituen aparailu berriaren erabilera arauak eraman. Erlauntzan utzi zituzten ahaztuta.

Agintariek mitxilikote taldea mobilizatu dute bilaketa lanetarako, baina badira dagoeneko hiru eguzki egun erlauntzak hutsik daudela eta ez dugu haien berririk.

Zer diote ba txamanaren puntukako marrazkiek? A, ez dakit, ez dugu txamanaren kobaren arrastorik aurkitu.

> BATEK IRUDIKA DEZAKEEN ORO,
> BESTE BATZUK ERREALITATE BIHUR DEZAKETE
>
> Julio Verne

Atal hauek ez dira BARRENen editorialak. Urtero 10 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak-beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Elgoibarrek eta Mendarok majo heldu diote KORRIKA 15i

Euskal Herriko gainerako herrietan bezala, Elgoibarren eta Mendaron ere harrera beroa egin genion KORRIKA 15i martxoaren 25eko eguerdian.

Berotasun hori era askotan islatu zen. Alde batetik *karreran* bertan parte hartuta, batzuek txaloka eta beste batzuek saltaka.

Bestalde, aurreko asteetan euren laguntza eta babesa beste era askotan gauzatu zen, bai kilometroa erosita, bai komertzio eta enpresetan diru-laguntza emanda, bai "laguntzaile" txartela eginda, bai materiala erosita, bai ekitaldi kulturalak antolatuta, bai *korrika txikia* prestatuta....

Hau guztia egiteko behar-beharrezkoa izan da jende askoren laguntza, eta horiek guztiak banan-banan eskertzea ezinezkoa denez, hemendik txalotu nahi ditugu. Horiek guztiek txaloak merezi badituzte ere, ondorengo hauek ere ez ditugu ahaztu nahi: Altzolakoak, emandako laguntzagatik eta bereziki Mendaroko Korrika batzordea, euren gain hartu baitzuten herria girotzeko eta kilometroak saltzeko eta erosteko ardura.

Bestalde, ezin ahaztu aurtengo KORRIKAren leloak "*heldu*" zioela, eta *karrera* bera bultza zedin eskatzeaz gain, *euskara*ri heltzea eskatzen zuela. Eskaera horrek honela dio: euskaldunek berba egin dezatela, ikasten dihardutenek ikasitakoa erabil dezatela eta, oraindik, pausu hori eman ez dutenak etor daitezela euskaltegira!

Ez ahaztu, euskara denona eta denontzat!

**AEK Euskaltegia**

## Kaixo lagunok:

BARRENeko azken atala ikusi ondoren jarri naiz idazten Aitzol eta Sare (izen politak) maitagarriei erantzun bat ematekotan. Ni, zuek bezala, gaztea izan naiz, gaur ez hainbeste, bada 71 urte hartu ditut eta etorri behar direnak etortzekoak badira, Jaungoikoak bakarrik daki; nik gustura hartuko ditut, jabetuta nagoelako gerorako etorkizun eder bat daukadala, hain zuzen, Nazareteko Jesusengan zeharo nire itxaropena jarrita dudalako. Ez bakarrik nire aurrekoengandik fede zoragarri hau hartu nuelako, baita ere, nire bizitzako bide "luze" honetan hainbat bizipen sakon, sinistu ezindakoak izan ditudalako, nigan marka gogorra utzi dutenak. Eta bizipen hauek ezingo dira aldatu, nahiz euria, txingorra, eguzkia edo izugarrizko ekaitza izan, nire sakon sakontasunean oinarrituta daudelako.

Zuek idatzitako azken "zozoak beleari" atalean oso ondo azaltzen duzue zuen iritzia eta gainera, zoriontzen zaituztet zuen iritzi hori garbitasunez eta zentzu batekin idatzita dagoelako. Esan nahi dizuet, nire ustez, idatzi horretan ez dagoela ez blasfemiarik (aittatu dozuen moduan) ezta tontokeriarik ere. Begiak argi eta esna dituzuela adierazten duzue, baina gehiago irekiko zaizkizue bizitzan aurrera zoaztela. Bizitza izango da eskolarik handiena...

Jesusen mezuak ez zaituztela engantxatu diozue, eliza gainbeheran dagoela eta mentalidade kontua ote den... Baliteke, baina ez al leike izan gaur egun dagoen dana eduki eta ulertu behar honek, era guztietako "askatasunak" bizi behar honek, Jesusek ekarri zigun mezu eta ametsik gorena ezkutatua uzten duela? Hau da, gizarte eta mundu askeago, berdinago, justuago bat, maitasuna eta zoriontasuna eskaintzen duen mundu berri bat gaurko eta betiko?

Arrazoia duzu Sare, bukaeran "*hobe genikek guztiok santu itxurak egiteari utzi eta benetako baloreak eguneratuko bagenitu. Pentsatzen dugunarekin koherenteak izan eta marketinga beste baterako uzted*" diozunean. Eta baloreak aittatzen dituzunez, gogoratu nahi nuke datorren igandean, hilak 22, TVE2 katean, elizak isilean drogaren munduan, baztertutako emakumeekin, umezurtzekin etab. egiten duen lanari buruzko erreportaje bat emango dutela. Mereziko du, seguruenik ikusteak.

Pazko zorionak denoi. Piztu zena bizi da. Aleluya.

**Maite Vallejo**

E-POSTA

**barren@elgoibarkoizarra.com**

BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: **izen-abizenak, NAN** eta **telefono zkia**.

[b]

barren

Nafarroa enparantza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 74 41 12 • Faxa: ☎ 943 74 37 04
E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com
Publizitatea: ☎ 943 74 37 04 • E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:
ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA

ZUZENDARIA Enrique Bert KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Esther Gurrutxaga PUBLIZITATEA Eider Iriondo MAKETATZAILEA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK Antton Alberdi, Uxue Alberdi, Oihana Apellaniz, Eguzkiñe Aranberri, Jon Eugi, Ion Garate, Aitzol Garmendia, Juanito Gorostiza, Amaia Gorrotxategi, Sare Gurrutxaga, Imanol Larrañaga, Ainhoa Lendinez, Jesus Mari Makazaga, Ainhoa Mendibil, Ane Odria, Maialen Olazabal, Jasone Osoro, Iñigo Otaño, Alain Ulazia, Maite Uriarte, Unai Villena, Alaitz Vives INPRIMATEGIA Gertu TIRADA 4.630 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

## KEXAK

• Trenbide kaletik Santa Ana kalerako espaloia oso labaina da: "Herriko beste txoko askotan gertatzen den bezala, Trenbide kaletik Santa Ana kalera doan espaloia oso labainkorra eta arriskutsua da. Euria egiten duen egunetan, beldurrez eta kontu handiz ibili behar izaten dugu, lurrera ez erortzeko. Elgoibarren leku asko daude horrela, San Frantzisko kalea, King-Kong azpia, Loritoko aldapa, Urasandiko espaloiak... Ezbehar bat baino gehiago gertatu da dagoeneko. Besterik gertatu aurretik, neurriak hartzeko eskatuko nioke Udalari. Mila esker".





• Kristalezko botilak Arregitorre kaleko pasealeku zaharrean zeuden, baina ez zituzten udaletxeko garbitzaileek bota: Herritar batek udaletxeko langileek kristalezko botilak Arregitorre kaleko pasealeku zaharrera bota zituztela adierazi zigun, eta argazkia ere bidali zigun. BARRENen honela argitaratu genuen, baina aste honetan udaletxeko bi garbitzaile eta mankomunitateko arduraduna etorri zaizkigu, oso haserre, hori gezurra dela esanez. Beraien esanetan, kristalezko alkohol botila haiek han zeudela egia da, baina ez zituzten beraiek bota, eta gainera, ez omen da beraien lana leku hori garbitzea. Beraz, joan zen asteko kexa bidali zuenari eta herritar guztiei argitu nahi diete, beraiek ez daukatela botila horiekin zerikusirik.

## TXALOAK

• Eskerrik asko San Lazaro Egoitzako langileei gure amamaren 100. urtebetetzeko ospakizunagatik: Teodosia Iriondok 100 urte egin zituen apirilaren 2an, eta bere senideek eskerrak eman nahi dizkiete ospakizun eguneko ekintzak antolatu zituztenei: "Mila esker San Lazaro egoitzako langile, arduradun eta bertan bizi diren pertsona guztiei, gure amamaren 100. urteurrena ospatzen laguntzeagatik. Lan bikaina egin zenuten eta oso ondo pasatu genuen. Eskerrak bertan izan zineten guztioi".

Atal honetarako kexak, txaloak edo galderak helarazteko:

**E-posta:** barren@elgoibarkoizarra.com
Nafarroa enparantza, 2
20870 **ELGOIBAR**
☎ 943 74 41 12

Elgoibarko Udala
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
DANOBAT
kutxa
GOITI
GRUPO DANOBAT



# URRUZUNOREN luma

## Uhinak

Irakurri nuen aldizkari batean bi argazki ageri ziren bata bestearen ondoan: basamortu batena bat eta itsaso zabalarena beste bat. Harrigarria zen bien arteko antza, basamortuaren hareak sortutako uhinak urak sortutakoen antzekoak ziren, hondarraren hori koloreak eta uraren urdin koloreak desberdintzen zituen soilik. Argazkiek momentua harrapatzen dute eta ez dira mugimenduaz ohartzen, ez dute basamortua eta itsasoaren artean dagoen alde handia nabaritzen.

Basamortua bakardadea da. Lasaitasuna. Uhinen mugimendu nagi eta isila. Ez dago aldaketa zakarrik, dena da leun eta kontrolatua. Itsasoa aldiz bizia da. Zakarra eta aldagarria. Lasai egoteko tokirik aurkitu ezinda balebil bezala, beti mugimenduan.

Denok dauzkagu gure barnean basamortua eta itsasoa. Hor daude, beti borrokan, nork bere lekua aldarrikatuz, bata lasai, bestea bizi, geure barneko uhinak gobernatu nahian.

*Iñigo Otaño*

## [ ZORTZIKO TXIKIAN ]



### AINHOA GARATE

G&M DENDAKOA

• **Zein izango da uda honetako jantzien erregea?**
Praken gainetik jantzeko soinekoak. Neguan asko ikusi dira eta udan ere bai.

• **Erosotasuna ala moda?**
Denetarik dago, batzuk moda asko jarraitzen dute, baina batez ere, jantzi polita eta ondo geratzen dena.

• **Prezioari ala markari begiratzen zaio gehiago?**
Marka ondo saltzen da, baina gero eta gehiago begiratzen zaio prezioari.

• **Kalitatea eta marka batera doaz?**
Askotan bai. Markak kalikatea ematen du eta praketan batez ere, jendea marka bila etortzen da.

• **Elkarrekin joan ezin diren bi kolore?**
Gorria eta horia.

• **Sekula jantziko ez zenukeen arropa?**
Ondo ikusten banaiz, dena jantziko nuke.

• **Gona ala prakak?**
Prakak, erosotasuna ematen du. Gonaren bat armairuan eduki behar da, baina sei egun prakak eta bat gona.

• **Sport jantzia ala elegantea?**
Sport. Jendeak jantzi troteroa nahiago du. Ezkontzetarako ere gero erabiltzeko moduko erropak erosten dira.




*"web orrixari esker, Elgoibarrekin harreman estuagua daukat"*

*"elgoiBARREN.net-ek hurbilttasuna ekarri dit; distantziatik neure herriko berrixak jasotzeko aukeria. Elgoibarrekin harreman estuagua daukat. Ikusteko oso erreza da, eta interesgarrixa begittantzen jata jendiak iritzixak emateko daukan aukeria. Zorionak eta eskerrik asko"*

Irune Ulazia, Bartzelonan bizi den elgoibartarra

**www.elgoiBARREN.net**
Elgoibarko berri izateko beste modu bat.

ELGOIBARKO IZARRA KULTUR ELKARTEA




*Giro apartaz goza ezazu!*







# TOLETXE Taberna

PEDRO MUGURUZA 8, BEHEA • ELGOIBAR • TEL.: 943 74 10 12

## EUSKAL ENCOUNTER 2007

**Ordenagailuan orduak hegan joaten al zaizkizu? Interneten nabigatzea gustuko al duzu? Informatikaren munduarekin txundituta bizi zaren horietako baldin bazara, Euskal Party ekitaldian parte hartu behar duzu. Euskal Encounterrean zu bezalako zibernauta mordoa ezagutzeko aukera izango duzu eta bide batez, informatika material interesgarri mordoa eskuratu ahal izango duzu. BECen zita bat daukazu uztailean, ez ahaztu.**



Uztailaren 20ko goizeko 10:00etatik 23ko iluntzeko 18:00ak bitartean izango da Euskal Encounter 2007 topaketa Bilboko BEC aretoan Informatikako profesional eta zaleek antolatzen duten bilera handia da Euskal Encounter-a. Bertan hainbat egunetan zehar informatikarekin zerikusia duten ekintzak egiten dira eta baita ezagutzak konpartitu ere. 24 orduz egongo da zabalik, eta partehartzaileek bertan lo egiteko aukera ere izango dute. 80. hamarkadaren amaieran Europako iparraldean, (Norvegia, Danimarka edo Alemania bezalako herrialdeetan), sorturiko fenomenoaren parte da. 1993az geroztik Euskadin urtero ospatzen den LAN party hau, 2007. urtean bere 15. ediziora iritsi da, Estatuko ezagunenetarikoa bihurtu delarik. LAN party deritzo jolastu eta informazioa elkarbanatu eta elkartrukatzeko ordenagailua daramaten pertsona ugari biltzen dituen jaialdiari. Iazko edizioan 5.750 partehartzaile bildu ziren Barakaldon. Hauek dira aurtengo ekitaldiak izango dituen ezaugarri batzuk:

- 4096 ordenagailuarentzako lekua
- 2 Gigabit interneterako sarrera
- Scene lehiaketak: Demo-ak, intro 64K, intro 4K, 3D animazioak, musika...
- Joku lehiaketak (Gamegune barne)
- Hitzaldiak, informatika dendak...

Informatikaren jaialdi erraldoi honetan parte hartu nahi dutenek 40 euroko matrikula ordaindu behar dute. Taldeka edo banaka hartu daiteke parte. Interesatuek **www.euskal.org** helbidean aurkitu dezakete informazio gehiago.

On informatika
Upaiz Zaharra 6
943 741 846
www.oninformatika.com
on@oninformatika.com

ZAZPI INFORMATIKA
zazpi@telefonica.net
Pedro Muguruza, 8 behea
Tel./Faxa: 943 74 37 87

MICRO SYSTEM
INFORMATIKA
DENDA
Lerun industrialdea, 6
ZERBITZU TEKNIKOA
Jausoro Plaza, 3
ELGOIBAR
Tel.: 943 74 02 40
E-posta: info@elgoinet.es

Softlan
analisia & programazioa
Antonio Arrillaga, 1
Tel.: 943 74 81 05
info@soflan.biz
www.softlan.biz

# [AKORDATZEN NAIZ]



## MARI TERE IRAEGI

1932an jaioa

### «Basarrixa»

Ni izatez kaletarra naiz, kalian jaixotakua baina baserriko bizimodua ezagutu dot. Familixia baserrittarra nakan eta askotan juaten nintzan bisittan edo egunak bertan pasatzera. Eta neretzako baserriko kortako usaiña oso ona zan, gustau eitten jatan. Animali usaiña izugarri gustatzen jatan!

Kortia hantxe baserri sarreran egoten zan. Lagunak esaten zien: "tu eres una cochina", eta barre eitten zien. Basarriko girua orokorrian beti gustau izan jata, oso politta da. Han bizitzia ez da hain gozua izango baina bisitan juateko oso ondo dago, tenporadatxo bat pasatzera, baina bizitzeko nahixo dot kalia, ni kaletarra naiz.



# [GURE BERBAK]

## *Fonologia (5): bustiduria*

Gaurkuan geure-geuria dogun fenomeno fonologiko bat aztertuko dogu: bustiduria. Batek baiño gehixagok galdetuko dau zer dan hori. Adibidiekin errazago ulertuko dogu, baiña azalpentxo bat ere emango dogu; i bokalaren eragiñez soiñu batzuk bustitziari, palatal bihurtziari esaten jako bustiduria (mingaiña aho-sapaira eruaten da era honetako soiñuetan: probatu bestela). Gatozen adibidietara:

*milla, mutilla, iñor, baiña, ofiziñista, itturrixa, dittut, habittazio, etorri de(d)iñ...*

Hau da berba hórretan gertatu dana:

*-IT- ➠ -ITT- ( ➠ -ITX-)*
*-IL- ➠ -ILL-*
*-IN- ➠ -IÑ-*

Hor goiko berbak jendiari normalak begittanduko jakoz, baiña ez beste batzuk: *inddar, ikusi ninddun, hildda dago* ... Hori gertatzen da indarra galtzen ari dalako bustidura klase hau gure herrixan (*-IND- ➠ -INDD-; -ILD- ➠ -ILDD-*): sasoi bateko elgoibartarrak egitten zeben (eta gaurko adiñeko batzuk ere bai), baiña gaztiaguak ez. Bustiduriak mendebalderago indar gehixago daukala ere esan bihar da, behiñ Eibartik hasitta: Elgoibarren egitten ez diran bustidurak egitten dira handik mendebaldera: *bakotx, eritxi, gatx, haretx, elexa, haixe, gatxizen...*

*Jesus Mari Makazaga*

CORDON VILARCHAO
DEKORAZIOA
Kanpo eta barneko estaldura
Zoluen kolokazioa
Lakadura: egur, aluminio, P.V.C.
Pintura orokorra
San Roke, 7 behea
Pol. Olaso - Olasope kalea, 18 - 25 eta 26 modulua
Tel. 943 740 570


karkizano
San Frantzisko, 14 – Tel. 943 74 05 49

Arrieta
San Bartolome, 18
Tel. 943 74 08 49

ETXEBIZITZAK ELGOIBARREN

# BEHARRA ALA NEGOZIOA?

*"Handitzen, handitzen... hasi naiz handitzen...". Umeen abesti baten letrak dira, baina badirudi abeslaria Elgoibar dela. Azken urteotan ikaragarria izan da gure herriak jasan duen aldaketa. Etxe berri mordoa eraiki dira bazter guztietan, kale berriak eta auzo berriak sortu dira. Hala ere, biztanle kopurua ez da handitu; 10.538 lagun bizi gara Elgoibarren. Ondorioz, etxebizitza asko hutsik daude, baina oraindik ere, etxeak eraikitzen ari dira. Noiz arte? Gizarteko arazorik nagusienetarikoa da etxebizitza. Oinarrizko behar bat, luxu bilakatu da. Gogoratzen al duzue nolakoa zen Elgoibar duela 20 urte? Ez da erraza. Guk azken urteotan gure herriak jasan duen eboluzioa jaso dugu bi orrialde hauetan. Norberak atera ditzala bere ondorioak.*

Kalean zoazela etxeetako leihoetara begiratu eta hamaika kartel ikusiko dituzu, batzuk salgai eta besteak alokairuan. Bigarren eskuko etxe mordoa dago salgai Elgoibarren, baina zein preziotan? Jende askok etxe zaharra saldu eta berria erosi nahi du, baina prezio berean. Ondorioz, jende askok nahiago du berria erosi eta bigarren eskukoak hutsik gelditzen dira. Zer da gaur egun etxebizitza, beharra ala negozioa?

## 639 ETXEBIZITZA HUTSIK

Oinarrizko behar batekin, dirua barra-barra irabazten dute batzuk, besteak itota bizi diren bitartean. Arazo batek beste bat dakar eta katea luzatzen doa. Gazte askok ezin du etxebizitza bat erosi, alokairua ere gero eta garestiago dago, beraz, gurasoen etxean bizitzea beste erremediorik ez zaie geratzen. Bien bitartean, Udalak egindako ikerketa baten arabera Elgoibarren 639 etxebizitza daude hutsik.

- **222:** Ur kontsumorik gabeko etxeak eta ez dago inor enpadronatuta.
- **216:** Ur kontsumoa daukate, baina ez dago inor enpadronatuta
- **197:** Ur kontsumorik ez dago, baina jendea dago enpadronatuta.
- **25:** Ur zerbitzurik gabeko etxeak, baina jendea dago enpadronatuta.



*Ubitarte Burun Babes Ofizialeko 99 etxebizitza eraikitzen ari dira.*

## BIZIGUNE PROGRAMA

Etxebizitza hutsen arazoa ez da Elgoibarkoa bakarrik. Eusko Jaurlaritzako datuen arabera, 26.000 etxebizitza daude hutsik Euskadin eta 75.000 pertsona inguru ari dira etxe bila. Gipuzkoan 13.531 dira hutsik dauden etxebizitzak. Bizigunetik esan digutenez, Elgoibarren 800 etxebizitza daude hutsik. Egoera honi irtenbidea eman nahian, Eusko Jaurlaritzak Bizigune proiektua jarri du martxan. Proiektu honen helburua inor bizi ez den etxebizitzei erabilera soziala ematea da. Honela, programa honen bidez etxebizitza alokatzen duenak ez du bere soldataren %30a baino gehiago ordainduko eta ugazabari eman beharreko gainontzeko dirua Jaurlaritzak jarriko luke. Beraz, etxebizitza bila dabilenarentzat ez ezik, etxebizitza hutsik daukanarentzat ere abantailak eskaintzen ditu programa honek: gutxienez 5 urtean etxea alokatuta izatea bermatzen du, errenta hilero kobratzea, etxebizitza ondo zaintzea eta beharrezkoa den kasuetan, 18.000 eurora arteko laguntzak eskaintzen ditu obrak egiteko.

Eusko Jaurlaritzatik jakinarazi digutenez, 403 elgoibartar daude Etxebiden izena emanda. Horietatik 352 pertsonak etxebizitza jabetzan nahiko lukete eta 181 etxea alokairuan hartzeko prest daude. Jaurlaritzak Elgoibarren ere jarri du martxan Bizigune egitasmoa eta dagoeneko, 22 etxebizitza alokatu dituzte programa honen baitan.



*Upai Zaharra kale berria sortu da ingurune honetan.*

## DATU INTERESGARRIAK

**639** etxebizitza hutsik Elgoibarren (Jauralritzaren arabera, 800)
**403** lagun Etxebiden izena emanda
**22** etxebizitza Bizi Gune programan alokatuta
**772** etxe berri azken bost urteotan, 135 Babes Ofizialekoak

### ETXE BERRIAK

Kontraesana dirudi, baina hauxe da gure herriko errealitatea. Etxe mordoa dago hutsik, eta hala ere, etxe berriak eraikitzen ari dira toki guztietan. Sekula pentsatuko ez genuen lekuan ere, mendia zulatu eta auzo berriak sortu dira. Gogoratzen al duzue nolakoa zen Elgoibar duela 10 urte? Azken bost urteotan eraiki diren etxebizitzen zerrenda luzatu digute udaletxetik, eta ez dira gutxi izan. 772 etxebizitza berri eraiki dira 2002. urtetik hona, eta horietako 135 Babes Ofizialekoak izan dira. Hauetako batzuk oraindik obretan ari dira eta beste proiektu batzuk onartuta dauden arren, oraindik eraikitzen hasi gabe daude.

Lurzoruaren lege berriaren arabera, hirigunean eraikitzen diren etxebizitzen %40ak Babes Ofizialekoak edo tasatuak izan behar dute, eta herrigunetik kanpora egiten diren etxeen kasuan, %75a. Aurrerantzean ere, badirudi joera berbera izango dugula, eta etxeak eraikitzen jarraituko dutela. Beharrezkoak al dira hainbeste etxe berri gure herrian?

## Eraiki diren etxeak

**2002**
2 etxebizitza Urkiola Txiki baserrian
36 etxebizitza Leku Ederren
1 Errekarte baserrian
1 Belarreta baserrian
22 Basarte 18-19an
5 San Frantzisko, 52an
120 Urruzuno 1ean –(Gabriel Krutzelaegi)

**2003**
1 Aozar baserrian
60 Aizkorri 5ean – (Aizkorri kalea)
16 Altzolako Bainuetxeko zumardian
17 Arregitorre 2ko 1. etxemultzoan
22 Arregitorre 2ko 2. etxemultzoan
30 Arregitorre 2ko 3. etxemultzoan
30 Arregitorre 2ko 4. etxemultzoan
24 Arregitorre 2ko 5. etxemultzoan (Babes Ofizialekoak)
34 Madala 2ko 3. lur zatian
22 Basarte 20-21ean
4 San Bartolome 32an

**2004**
1 Errotatxo Bekoa baserrian
8 Errosario, 19an
5 Trenbide 7an
40 Madala 2ko D lur zatian

**2005**
8 Errosario, 20an
12 Madala 2ko F lur zatian
99 Ubitarte Burun – (Babes Ofizialekoak)
16 San Frantzisko, 45-47an

**2006**
12 Basarteko 9-10 lur zatian
28 Madala 2ko C lur zatian
26 Madala 2ko B lur zatian
48 Aizkorri 6ko 1 lur zatian – (lehengo Geminis)
1 Iriarte baserrian
12 Aizkorri 6ko Babes Ofizialekoak – (lehengo Geminis)

**2007**
8 San Frantzisko, 6an
1 Orube baserrian

## [ PROTAGONISTA ]



### JavierNuñez

Javier Nuñez eibartarra izango da datozen Udal Hauteskundeetan PP alderdiaren alkatetzarako hautagaia. Javier Nuñezek bi legealdi egin ditu Soraluzeko udaletxean, eta orain, Iñigo Arkauzen ordez aurkeztuko da Elgoibarko udaletxean. Asteazkenean izan zen hautagai popularraren aurkezpena Kultur Etxean. Nuñezek ilusioz beteta datorrela adierazi zuen eta lanerako gogo handia daukala gaineratu zuen. Herria oso ondo ezagutzen omen du eta herritarren alde lan egingo duela ziurtatu zuen, "herria eta herritarrak dira guretzat garrantzitsuena".

## [ NOTIZIA ]

# Ermua eta Elgoibar lotuko ditu tranbia zerbitzuak 2009. urtean

Eibar eta Ermua lotzen dituen tranbia zerbitzua Elgoibarreraino luzatuko du Eusko Tren enpresak 2009. urte erdialderako. Javier Carlos de Bergara Euskal Trenbide Sareko lehendakariordeak jakinarazi duenez, zerbitzu berri honi esker, trenak 15 minuturo aterako dira.



### Egin beharrekoak

Tranbia zerbitzua Elgoibarreraino luzatu aurretik hainbat aldaketa eta hobekuntza egin beharko dira trenbide eta geltokietan. De Bergararen berbetan, "trenen maiztasun handia dela-eta, gurutzatu ahal izan daitezen bi noranzko trenbideak eraiki beharra izango da lanik handiena". Tranbia maiztasun handiko tren zerbitzua da. Eibar eta Ermua arteko tranbia zerbitzua duela 10 bat urte jarri zen martxan eta ehunka pertsonek erabiltzen dute egunero. Arduradunak oso gustura daude zerbitzu honekin eta horregatik erabaki dute Elgoibarreraino luzatzea. Baliteke aurrerago Mendaroraino iristea.

## [ ZENBAKIA ]

**6.446**

Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak jakinarazi duenez, Elgoibarren 6.446 motordun ibilgailu daude. Debabarrena Eskualdean 28.834 ibilgailu daude guztira, hauetatik 23.107 autoak dira. Datu hauek kontuan izanik, eskualdeko 1,9 biztanleko ibilgailu bat daukagu.

## asteko [ ARGAZKIA ]



Udazkena irudikatu dute Bernardo Ezenarro kaletik San Rokera bidean altxatzen den horman. Udazkeneko kolore-tonuak nagusi diren basoa irudikatu du Tht-Design, Getxoko bi gaztek sortu berri duten enpresak. Jo eta su aritu dira bi gazte hauek horma margotzen. Andamioak jarri eta bi astetan burutu dute margolana. 700.000 brotxakada eta 50 litro pintura erabili dituzte guztira. Lanik zailena zuhaitzen hosto guztiak banan-banan margotzea izan dela aipatu digute. Zementoaren hoztasunari epeltasun eta kolore apur bat ematea lortu dute.

# 7.000 ospitaleratze hartu zituen 2006an Mendaroko Ospitaleak




Duela 15 urte ireki zituen ateak Mendaroko Ospitaleak, eta urtetik-urtera, jende gehiagori eskaintzen dio zerbitzua. 2006an 7.000 izan ziren ospitaleratzeak, aurreko urtean baino 1.200 gehiago, hain zuzen ere. Kontsulta kopuruak ere gora egin du azken urtean eta 140.000 izan ziren guztira. Erditzeak berriz, 600. Mendaroko Ospitaleak Debabarrenako herriei (Eibar, Elgoibar, Soraluze, Deba, Mutriku, Mendaro, Ermua eta Mallabia) eta Ondarroa eta Azkoitiko biztanleei ematen die zerbitzua, hau da, 80.000 biztanle ingururi. Guztira 116 ohe ditu ospitalak, 382 langile eta 4 ebakuntza gela. Ospitalaren funtzionamendu gastua 28.190.000 eurokoa izan zen iaz.

**Berrikuntza eta hobekuntzak**

Mendaroko Ospitaleak eskaintzen dituen zerbitzuak hobetzeko eta zabaltzeko asmoa dauka aurrerantzean. Besteak beste, Eguneko Ospitalea eta kirurgi medikuaren zerbitzua handitu eta Larrialdietako Zerbitzua guztiz eraberrituko dituzte. Berrikuntza lanok 3 hilabeteko epean amaitzeko moduan izango direla aurreikusten dute ospitaleko arduradunek.

## Barandau berria jarri dute Txankakuako zubian



Txankakua zubiko petrilean barandau berria jarri du Udalak. Petrilari altura handiagoa ematea izan da honen helburua, izan ere, harrizko petrila bajuegia baitzen. 0,80 metroko neurria zeukan, gutxi gora behera, pertsona heldu baten gerriraino iristen zen. Arriskutsua zen eta erorketetatik babesteko helburuarekin egin dute berrikuntza hau. Barandau berri honi esker 30 zentimetro irabazi ditu petrilak eta aurrerantzean 1,10 metroko altura izango du.

## [ MOTZ-MOTZIAN ]

### Ura aurrezteko kanpaina

Udalak ura aurrezteko kanpaina jarri du martxan. Familia elgoibartar bakoitzari erreduktore bolumetriko bat banatu zaio eta honi esker pertsona bakoitzak urtean 4.000 litro ur aurreztea espero dute, alegia, ur kontsumoa %12an murriztu ahal izatea. Erreduktore bolumetrikoa komuneko zisterna barruan jartzen den plastiko malguko tramankulua da. Ur eta gatzez beteta, bonba tiratzen den bakoitzean, 1,5 litro ur aurrezten da.

### Odol Emaileak

Elgoibarko Odol Emaileen lokaleko obrak amaituta daude dagoeneko. Beraz, udaletxeko pleno aretoa utzi eta ohiko lokalean egingo dira gaur odol ateraldiak. Interesatuak arratsaldeko 18:30etik 20:00etara bitartean gerturatu daitezke lokalera. Odol Emaileen Elkartetik, herritar guztiak eta batez ere, gazteak animatu nahi dituzte odola ematera.

### Bai ala Ez lehiaketa

Hilabete honetan Alicia Gomez izan da BARRENeko Bai ala Ez lehiaketako irabazlea. Zumaiako Zelai Talasoterapia hotelean bi lagunentzako zirkutioa irabazi du. Zorionak! Parte hartzeko, astero BARRENen egiten dugun galderari bai ala ez erantzun behar zaio, 7505 zenbakira sms bat bidaliz. Zenbat eta erantzun gehiago, irabazteko aukera gehiago. Datorren hilabetean Gabi jatetxean bi lagunentzako afaria zozketatuko dugu.



Apirilaren 23an Liburuaren Nazioarteko Eguna izango da.

# Ba al daukazu liburuak irakurtzeko ohiturarik?

**LAURA DOMINGUEZ**
Zeladorea
23 urte



“Bai. *El santuario* liburua amaitu dut oraintxe. Norah Roberts idazlea gustatzen zait asko. Oraindik ez dut hurrengoa aukeratu baina liburu mordoa daukat etxean.”

**LORENA RODRIGUEZ**
Zaintzailea
26 urte



“Bai. *El codigo Da Vinci* irakurri berri dut, mordoa gustatu zait. Orain Garcia Marquezen *Cien años de soledad* irakurtzen hasi naiz. Ohean irakurtzen dut.”

**ANDONI ARRIOLA**
Arotza
39 urte



“Ez gehiegi. Che Guevararen bizitzari buruzkoa irakurri nuen azkena, historikoak gustatzen zaizkit, baina aspaldi ez dut ezer irakurri. Egunkaria egunero irakurtzen dut.”

**VERONICA BALMASEDA**
Etxekoandrea
30 urte



“Ez. Umeak eduki aurretik irakurtzen nuen, baina orain ez daukat denborarik. Ez liburuak, ezta egunkaria ere. Umeak hazten direnean helduko diot irakurketari berriz.”

# [ BAI ala EZ? ]

## Puntu bidezko gida baimenak izan al du eraginik?

**BAI %22**

“Bai. Nire inguruan behintzat jendea kontu handiagorekin ibiltzen da, eta edanez gero, ez dugu kotxerik hartzen. Hala ere, abiadura seinale batzuk gehiegizkoak dira.”

**EZ %78**

“Ez. Hasieran uste dut jendea apur bat kontzientziatu zela, baina dagoeneko, jendeari ahaztu zaio. Seinaleak ez dira errespetatzen. Normala da istripuak egotea.”

Batez beste, urtean 118 aldiz izaten dituzte sexu harremanak espainiarrek.

Datorren asterako... **Gustura al zaude zure bizitza sexualarekin?**

Bidali SMS bat:

**BARREN** (espazioa) **ERANTZUNA**

**7505** zenbakira

SMS kostua: 0'90 euro + B.E.Z.-a.

Gabi jatetxea

Hilean behin afari bat zozketatuko dugu **Gabi jatetxean**. Zenbat eta erantzun gehiago, aukera gehiago!

KIRIBILKA EGITASMOA

# Gaur arratsaldean Kiribilek bisitatuko gaitu Plaza Handian



Arratsaldeko 17:30etik aurrera, Kiribil eta bere adiskideak Plaza Handian izango dira, haur eta gurasoek arratsalde atsegina igaro dezaten.

Honakoa, Kiribilka egitasmoaren 2. saioa izango dugu. Aurtengoan, Kiribilkarako hautaturiko gaia: "aspaldiko eta betiko jolasak" izan dira eta orain artean bezala, jolasak, musika eta dantzak izango dira protagonista nagusiak, gaurkoan ere. Helburua, berriz, jakina: haur eta euren gurasoek euskaraz ongi pasatzea. Oraingo aldi honetan ere, pertsonaia misteriotsu bat etorriko da Kiribilekin batera, bertaratzen diren guztiei dantza eta jolas berriak erakusteko.

### Kiribilkaren lehenengo saioa

Pasa den, martxoaren 30eko saioak 80 haurretik gora bildu zituen Plaza Handian eta baita, guraso pila bat ere. Kiribilekin batera, Joxefina eta aitona Juanito izan ziren, pertsonaia gonbidatuak. Eguraldiak lagundu ez bazuen ere, gustura ibili ziren guraso eta haurrak. Honenbestez, badakizue animatu eta gaur arratsaldean Plaza Handira gerturatu, arratsaldeko 17:30etik aurrera. Hurrengo saioa, datorren ostiralean izango da, hilaren 27an.

## Elgoibarko gaztetxean hainbat kontzertu izango dira bihar, Debabarreneko gaztetxeek antolatuta

Debabarreneko Gaztetxeek egun guztirako egitaraua antolatu dute biharko Elgoibarko gaztetxean. Ekimen honetan biltzen den dirua, gaztetxeek elkarlanean jarraitzeko erabiliko da eta "Gazte Martxa" egunean jaso zituzten isunak ordaintzeko.

Prestaturiko egitaraua honakoa izango da: eguerdiko 14:00etan bazkaria egingo da Elgoibarko gaztetxean eta ondoren, Azkaiter Pelox bakarlariak kontzertua eskainiko du. Arratsaldeko 18:00etatik aurrera, hainbat musika taldek kontzertuak emango dituzte: Fly Shit, Bhu, K-104, eta D.A.M.

Aipamen berezia egin Fly Shit talde bergararrari. Laukoteak ibilbide luzea egin du, 16 urterekin gustuko zuten musika zuzenean jotzen hasi zirenetik. Inurri lana eginez, Bergara hardcorearen mapan jartzea lortu dute, eta urte guzti hauetan, makina bat gaztetxetan jo dute. Bigarren diska ere kalean da eta Norbegiako "Life, but how to live it?" melodia handiko hardcore taldearen leloa aukeratu dute diskari izena emateko.






### Triska Barra

Nazioarteko Dantza Eguna delaeta, Triska Dantza Taldeko ballet ikasleek Eibarko Untzaga Plazan egingo den "Triska barra" saioan parte hartuko dute bihar, apirilak 21. Elgoibarko 42 ikasle eta Mendaroko 26 izango dira. Barra honen helburua, dantzariek egunero egiten duten prestakuntza kaleratzea eta erakustea da. 170 dantzarik hartuko dute parte ekintza honetan. Arratsaldeko 19:00etan hasiko da eta 30 minutuko iraupena izango du. Beste toki askotan bezala egun honetarako idazten den gutuna irakurriko da; oraingoan Sacha Waltz koreografoak idatzia.

### Argazki zaharren erakusketa

Euskal Jaien mendeurrena gogoraratzeko egingo diren ekintzen artean, uztailean argazki zaharren erakusketa prestatuko du Elgoibarko Udalak, Ongarri argazkilari taldearekin batera. Udalak etxean antzinako argazkiak (Gerra Zibila baino lehenagokoak) dituzten herritarrei dei egiten die, Udalarekin harremanetan jar daitezen. Interesatuek Udaleko Euskara Batzordearekin jar daitezke harremanetan: 943744366 telefono deituz edo euskara@elgoibar.org helbidean.

PRAILEAITZ HAITZULOA

# GURE ARBASOEN GOTORLEKUA

*Gaurkoan, Aitor Etxeberria, Praileaitz plataformako kide mendaroarrarekin izan gara solasean. Gaur egun, Debako udalerrian aurkitzen den, "Praileaitz" haitzuloak bizi duen egoera delikatua dela eta, bere kezka adierazi digu eta modu berean, duela gutxi, Kultur Ondasun Kalifikatu izendaturiko ondare hau, babesteko beharra eta aldarrikapena azpimarratu dizkigu Aitorrek.*

Praileaitz haitzuloa, Debako udalerrian dagoen Goi Paleolitoko leizea dugu. Garai hartan, Europako kontinentearen zatirik handiena izotzez estalia zegoen eta asentamenduetako asko, behe aldeko lurretan kokatzen ziren, sarritan, kostaldetik gertu. Eremu honetan azaltzen dira, hain justu, europar kontinenteko eta Euskal Herriko aztarnategi garrantzitsuenetako zenbait. Horietako batzuk, Deba arroaren behe aldean, tartean, Praileaitz.

Deba ibaiaren eskuineko ertzean eta 50 metrotako kota batean dago eta une hauetan, leizetik gertu, 100 metro eskasetara, Zeletako harrobian, Amenabar enpresa ustiatze jarduera lanak egiten ari da. Leizearen barrunbea, hainbat espazioz eratua dago eta sarreran, atondo bat aurkitzen da, gutxi gora behera, 50 metrotako areto biribil batzuei sarbidea emanez. Hainbat galeria ere baditu, 50 metro baino gehiagotan luzatzen direnak.

### Kontserbazio egoera

Aitorren hitzetan: "une honetan leizearen kontserbazio egoera, hoberena ez dela esan genezake, izan ere, haitzuloaren inguruan harrobiaren ustiatze lanak erritmo biziz ari dira burutzen, leizearen muga fisikora arrisku handiz gerturatuz".

Gainera, ustiatze lanak hasi zirenetik, orain arte, hainbat kalte jasan ditu haitzuloak. Hala jakinarazi digu, Praileaitz plataformako kideak: "ustiatze zonaldearen eta Praileaitz leizearen artean metro gutxiko distantzia egoteak, mendi bideak eraikitzeko lanek eta bere gainekaldeko zuhaitzak botatzeak, eragin dute aztarnategi garrantzitsu hau, gaur gaurkoz, hondatzear egotea edo baita, agian, suntsitzear ere".

Aipamen berezia merezi duten arrisku faktoreekin jarraituz, batez ere, leherketak azpimarratu ditu mendaroarrak: "batzuetan, potentzia handiko leherketek, harri jauziak eta pitzadurak eragiten dituzte haitzu-








*Harrobiko lanak Praileaitz kobara nola gerturatzen ari den ikusi daiteke goiko irudian.*

loaren barruan". Guzti honi, zera erantsi behar zaio, Praileaitzen aurkitutako margoak 18.000 urte dituztela eta denboraren poderioz, ez daudela egoera onean, hezetasunak eta kareak dagoeneko, bere lanak egin baititu. Honenbestez, "oraingo harrobiaren gertutasunak, ez dio askorik laguntzen bere kontserbazio egoerari" azaldu digu Aitorrek. Ez hori bakarrik, indusketa arkeologikoaren gaineko lanen egoera, ez da askoz hobea. Aitorren esanetan: "ikerlariek harrobian leherketa bat egiten den bakoitzean, leizetik atera behar izaten dute".

**"Harrobiaren gertutasunak ez dio laguntzen leizearen kontserbazioari"**

AITOR ETXEBERRIA

### KULTUR ONDAREA

2006ko udazkenean, Aranzadi Zientzia elkarteko arkeologoek, Goi Paleolitoan euren jatorria zuten labar margo batzuk aurkitu zituzten. Hain zuzen ere, aurkikuntza hauek izan ziren, Praileaitz haitzuloa, kultur ondare izendatzearen arrazoia. Margo hauek, ordea, ez dira orain arte eginiko aurkipen bakarrak. Lehenago, itxuraz erritu funtzioa zuten sukaldeak, uharri beltzez osaturiko hainbat lepoko eta okrezko lapitzak topatu zituzten, besteak beste. Baina, modu bereziz arreta deitu zuen objektua, Paleolitoko Venusen antza duen lepokoa izan zen. Aurkikuntza guzti hauen garrantzia eta balioa, mundu osoko aditu eta ikertzaileek aitortu dute.

### INSTITUZIOEN JARRERA

Honenbestez, Praileaitz leizearen balioa aintzat izanik, bai Eusko Jaurlaritzak, bai Gipuzkoako Foru Aldundiak, une hauetan, Praileaitzen egoera ikusita eta indusketa lanak tartean direla, zer nolako jarrera duen galdegin diogu Aitorri. Bere erantzuna, honakoa: "nahiko jarrera nahasia. Batetik, ikerketa lanak geldiarazteko eta Aranzadi elkarteari kobaren egoerari buruzko txosten bat egitea eskatu dio. Baina, bestetik, ez dugu ikusten harrobiaren ustiatze jarduerak norabidea aldatzen duenik". Gainera, gogora ekarri behar da, oraintsu, Euskal Herriko eta Gipuzkoako buletinean ebazpen bat argitaratu zela, non, kobaren babes errejimena, haitzuloaren sarreratik hasi eta 100 metrotara finkatzen zen. Hala ere, Aitorren hitzetan eta lehenago, adierazi bezala, "zonaldean ustiatze lanak aurrera doaz, leherketak barne".

**"Igandean martxa bat egingo da oinez Praileaitzera"**

AITOR ETXEBERRIA

### PRAILEAITZ PLATAFORMAKO KIDEAK

Praileaitz haitzuloa babesteko, bertako kideek liburu bat argitaratzeko asmoa dute. Horrela, gisa honetan lortzen den finantzaketa, leizearen babesa eta ikerketa bermatzera zuzenduko da. Aitorrek azaldu digunez, kalitate handiko liburua izango da. Guztira, 216 orrialde izango ditu eta lau hizkuntzatan idatziko da: euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez. "Bere edukia aztarnategiaren balioa azpimarratuko duen sarrera batek eta kolaboratzaileon ekarpenek osatuko dute".

Gaur arratsaldeko 19:00etan Debako Kultur Etxean Praileaitzi buruzko bideo emanaldia eskainiko du Xabier Peñalberrek. Domeka honetan berriz, goizeko 10:00etan oinezko martxa bat aterako da Debatik, Praileaitz eta bere inguruak jendeari erakusteko. Eguerdian Debara bueltatuko dira eta sinadurak jasoko dituzte haitzuloaren alde.

ESKUBALOIA

# 5 neska elgoibartar txapeldun Gipuzkoako selekzioarekin



Gipuzkoako eskubaloi selekzioarekin, bost neska elgoibartarrek jokatu zuten infantil mailako txapelketa Hondarribian, pasa den apirilaren 8an. Goizean, Aquitaniako selekzioari irabazi ondoren, arratsaldean, finaleko norgehiagoka Bizkaiko selekzioaren aurka jokatu eta irabazi zuten. Ondorioz, Gipuzkoako neskak, txapeldun geratu ziren. Honatx gipuzkoar selekzioko partaide diren jokalari elgoibartarrak: Ane Iñiguez, Aintzane Arizmendi, Ane Urain, Maite Bollar eta Estibaliz Bilbatua. Era berean, Lorea Gabilondo entrenatzaile laguntzaile lanetan aritu zen.

### Tecnifuelle eta Lojantzi

Igoera faseak azkenean ez dira Elgoibarren jokatuko. Nesken taldeak Barañainen jokatuko dute eta irabaziz gero, mailaz igoko dira. Mutilak berriz, 15 egun barru jokatuko dute Colindresen.

### "Sakana Pumori" espedizioa Morkaikoren mendi emanaldietan

Apirilaren 25eko saioan, Benantzio Irureta, mendizale azpeitiarra izango da hizlaria. Sakana Pumori espedizioa ardatz harturik, bidaian zehar eta etxera itzultzean bizi izandako momentu gogor eta hunkigarriak izango ditu mintzagai. 22 eta 27 urte bitarteko 3 nafar, aizarnazabaldar bat eta azpeitiar bat zihoazen bidean gora. 6.600 metrora zeudenean, ez zuten egin beharreko komunikaziorik burutu. Elur jausi ugari dauden mendia da Pumori (7.161) eta ondorioz, alarma guztiak piztu ziren...

# Igeriketa eguna izango da bihar Olaizaga Kiroldegian

Igeriketa eguna ospatuko da bihar, larunbata, hilak 21, Elgoibarko Olaizaga kiroldegian. Ekitaldiaren hasiera, goizeko 9:30ean izango da, eta ordutegia ondorengoa: 6 eta 9 urte bitarteko neska mutilak (10:30ean) arituko dira; 10 eta 14 urte bitartekoak, berriz, (9:30ean) eta azkenik, 10-14 urte artekoak (9:30ean).



### Frogak

Txikiek jokoetan parte hartuko duten bitartean, nagusiek igeriketa froga desberdinetan jardungo dute. Kirol ekimen hau ikusi nahi duenak, horretarako aukera izango du. 1go solairuan dagoen gimnasioko lehioetatik edo igeriketa tokitik ikusi nahi duenak, egin dezake, baina, txankletak behar dira.


Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Idama



Martxoko irabazlea:
LOREA OTEIZA

Apirileko oparia:
ESTRESA GUTXITZEKO MASAIA
+
MANIKURA
+
PEDIKURA

Antonio Arrillaga, 6-8 behea (sarrera Santa Ana kaletik)
Tel.: 943 74 40 26



eusko alkartasuna

Hauteskunde Autonomikoetan
KORREOZ BOZKATZEKO ZERBITZUA

**Alkartetxea**
Jausoro Plaza, 4
20870 Elgoibar

**Informazioa:** 943 53 12 99

**Ordutegia:**
*Arratsaldez:*
Astelehenetik / Ostegunera
19:00etatik 20:00etara

KROSA

# XIV. Jose Gurrutxaga Haur Krosa jokatuko da domekan, goizeko 11:00etatik aurrera




Elgoibarko Ikastolak antolaturik, Jose Gurrutxaga krosaren XIV. edizoa jokatuko da domeka honetan eta lasterketak, goizeko 11:00etatik aurrera hasiko dira.

Aurtengoan ere, partaidetza handia izango da kros honetan, Elgoibar eta Mendaroko 572 haurrek eman baitute izena.

Guztira, hamalau lasterketa jokatuko dira eta azkena bukatu bezain laster, sari banaketari ekingo zaio. Parte hartzaile guztiek, sariak jasoko dituzte eta LH 5. mailatik gorako neska mutilen artean, lehen postuan sailkatzen direnek, trofeo bana jasoko dute.

**Lasterketen ordutegiak**

Goizeko 11:00etan, 2000 eta 1999. urtean jaiotako haurrak arituko dira. Lau lasterketa ospatuko dira eta 320 metroko ibilbidea egingo dute. 11:15ean, berriz, 1997 eta 1998 urteetan jaiotakoen txanda izango da. Maila honetan ere, 4 lasterketa egingo dira; zirkuitoaren luzera, 615 metrotakoa izango delarik. Jarraian, 11:45ean, 11 eta 12 urtekoak arituko dira antxintxika. Adin bitarte honetan ere, lau lasterketa izango dira, hori bai, ibilbidea luzeagoa izango da, 955 metrotakoa, hain zuzen ere. Azken neurketa berriz, eguerdiko 14:20tik aurrera jokatuko da eta bertan, 1420 metrotako distantzia egin beharko dute, 13-16 urte bitarteko neska mutilek.



## Bi elgoibartar Chamonix-Zermatt eski trabesian

Joseba Elustondo eta Arkaitz Irureta elgoibartarrek Alpinismoaren bi hiribu-ruak (Chamonix eta Zermatt) lotzen dituen mendi ibilbide ikusgarria egin dute Aste Santuko oporrak aprobetxatuz. Mont Blanc eta Cervino mendi erraldoi eta mitikoak batzen dituen bidea 1903. urteko urtarrilean egin zen estreinakoz mendiko eskiekin. Bi elgoibartarrek 4 egunetan osatu zuten 70 kilometroko zeharkaldia.

## [ EMAITZAK ]

**FUTBOLA**
Haundi 2 - Zalla 4

**ESKU PILOTA**
Bergara 22 - Lagunak 11 (nagus.)
Lagunak 20 - Aretxabaleta 22 (nagus.)
Eskoriatza 22 - Lagunak 11 (jub.)
Bergara 22 - Lagunak 10 (kad.)
Lagunak 2 - Eskoriatza 22 (kad.)
Olalde 9 - Lagunak 22 (nagus.)

**ESKUBALOIA**
Basauri 23 - Lojantzi 23 (Senior nesk.)
Aviron Baiona 27 - Lojantzi 26 (Senior. nesk.)

## [ AGENDA ]

**FUTBOLA** Mintxetan
Zapatua, 21
16:30 Elgoibar – Orioko (erreg.)
18:30 Elgoibar – Aretxabaleta (jub.)
Domekia, 22
11:30 Elgoibar – Salvatierra (nesk.)
16:30 Elgoibar – Añorga (O. infan.)

**ESKU PILOTA** Ikastolako frontoian
Domekia, 22
12:00 Lagunak – Bergara (Jub.)
Lagunak1 – Bergara1 (nagus.)

**ESKUBALOIA** Kiroldegian
Zapatua, 21
09:30 Cometel – Bera bera (Jub. nesk.)
11:00 Cometel – Bera bera (Kad. nesk.)
12:30 Olalsa – Lezo (Inf. nesk.)

## Kiroldegiko oharra

Elgoibarko Udal Kirol Patronatuak jakinarazten du larunbatean, apirilaren 21ean, goizez igerilekuan umeentzako Igeriketa jaialdia ospatuko denez, erabiltzaileek ezin izango dutela igerilekua erabili goiz guztian. Bestetik, Olaizaga kiroldegiko gizonezko saunekin gertatu zen bezala, Kirol Patronatua egun hauetan emakumezkoen saunen berritze lanekin hasi da. Beraz, obrak irauten duten bitartean, emakumeek gizonen saunak erabili ahal izango dituzte. Hurrengo berritze-egokitze lana sarrerako tornoetan egingo da, maiatzaren bukaera aldera, tornoetan hatz markaren bitartez sartzeko sistema jarriko baita.

# Merkatua

## [ ETXEBIZITZAK ]

### SALMENTA

- Etxea salgai San Roken. Eguzkitsua, erabat berritua. 3 logela, egongela, sukaldea. 2 komun eta arropa esekilekua. Garajea eta ganbara. ☎ 943740194
- Urruzunon etxea salgai. Bizitzera sartzeko prest. Prezioa eta irudiak ikusteko: www.esnips/web/etxepolita.com ☎ 660884060
- Etxea salgai Sigman. Bista onak. Balkoia, sukaldea, egongela, komuna, 3 logela. ☎ 676623114
- Pisua salgai Zumaian. Egoera onean. 2 logela, komuna, sukaldea, egongela. Bista ederrak. Dena kanpora. Erdialdean. Itzurun hondartzatik 500 metrora. 280.000 euro. ☎ 943537271
- Pisua salgai Zumaian. Berritua. 2 logela. Itzurun hondartzatik 2 minutura. Jantzigela handia. Egongela. Bista ederrak. Sukaldea maila goreneko materialarekin. ☎ 943535214
- Altzolan etxe ia berria salgai. 3 logela, bi komun, egongela-jangela. Garaje itxia eta trastelekua. ☎ 650243359

### ALOKAIRUA

- Bi logelatako etxea hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ 699486458
- Adineko emakumeak pisu txikia hartuko luke alokairuan. ☎ 659399824

## [ GARAJE eta LOKALAK ]

- Garaje itxia alokatzen da Santa Klaran. ☎ 628764686
- Garaje marraduna alokatzen dut Pista Beltzean. ☎ 665735660
- Garaje itxia alokatzen da Leku Ederren. ☎ 652771184
- Garaje marraduna salgai Ikastola ondoan. Estalia. ☎ 943743578

## [ AUTOAK ]

- Hyunday Pony autoa salgai. 151.000km. Egoera oso onean. ☎ 665714728
- Renault Clio 1.5dci autoa salgai. 2004koa, 5.100km. Egoera onean, beti garajean. ☎ 686762146

## [ BESTELAKOAK ]

- Mutrikun txalupa salgai. 4,09x1,63. Puntala 0,70m, 1.300kg. Diter motorra, 9 zaldi. Fibrazko kaskoa, ur hustuketa berez egiten du. 4.000 euro. ☎ 665728662
- Ordenagailu portatila salgai. 1.7GHz centrino, 1.6DRR, 80G disko gogorra. Egoera onean. ☎ 646160480
- Bigarren eskuko aulkiak salgai. ☎ 620810120

## OHARRA

Salmentarako eta alokairurako iragarkiak ordaindu egin behar dira. Iragarkiak lau astetan agertuko dira. Etxeak, lokalak eta garajeak: salmenta 12 euro eta alokairua 8 euro. Autoak 8 euro. Eta bestelakoak 5 euro . Asteazken eguerdia baino lehen. Tel.: 943 74 37 04

## LANA

### ESKAERA

- Eraikuntzako 2. mailako ofiziala lanerako prest.. ☎ 661225149
- Mutila kamarero, igeltsero zaintzaile edo garbiketetarako. ☎ 650813847
- Emakumea garbiketa lanak egin eta nagusiak zaintzeko prest. ☎ 667709439
- Neska umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketetarako prest. ☎ 666110602
- Neska umeak zaintzeko prest. Esperientzia. ☎ 627437179
- Neska lanerako prest. ☎ 699813826
- Mutila igeltsero, enkofradore edo seguritate lanetarako prest. ☎ 943172896 (Iosu)
- Emakumea egunez edo gauez lan egiteko prest. ☎ 943172896 (Mertxe)
- Biokimikan lizentziatuak klase partikularrak ematen ditu. Mate, fisika, kimika, ingles, biologia... ☎ 675703356 (Nerea)
- Neska garbiketa lanak, umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 650817847
- Neska lanerako prest. ☎ 667806119
- Mutila peoi edo garbiketetarako prest. ☎ 679759349
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 679759349
- Neska umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 648835924
- Mutila umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 647190246
- Karaokedun mutila tabernetan lan egiteko prest. ☎ 671171503
- Emakumea umeak, nagusiak zaindu, garbiketak egin, kamarera... Esperientziaduna. ☎ 638527915/943530132
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest egunez eta gauez. Esperientziaduna. ☎ 675711658
- LH eta DBHko partikularrak ematen ditut. ☎ 943531054
- Emakume euskalduna gaixoak zaintzeko prest arratsaldez edo gauez. ☎ 626438248
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako prest. ☎ 671476869
- Mutil gaztea pintore, igeltsero edo kamarero lanetarako prest. ☎ 610632782
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko prest. ☎ 606169667
- Ingeniari Teknikoak DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen ditu. (Mate, fisika, kimika...) ☎ 653733217 (Miren)
- Emakumea ostalaritzan edo garbiketa lanerako prest. ☎ 666032715
- Neska garbiketa lanak egin edo nagusiak eta umeak zaintzeko prest. ☎ 638527915
- Bi gizon igeltsero, garbitzaile, zaintzaile lanetarako prest. ☎ 638494501
- Esperientziadun emakumea umeak, nagusiak zaindu edo garbiketarako prest. ☎ 638515953
- Mutila lanerako prest. ☎ 654604798
- Mutil gaztea nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako prest. ☎ 638515953
- Emakume elgoibartarra garbiketarako prest. ☎ 699717008
- 50 urteko emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest. ☎ 648842509
- Emakumea garbiketak egin, nagusi edo umeak zaindu, sukaldari... ☎ 654604798
- Emakumea lanerako prest. ☎ 671343612
- Neska nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin... ☎ 617056828 (Lili)
- Neska nagusiak edo umeak zaindu, garbiketa lanak egin... ☎ 666273122 (Marlene)
- Neska lanerako prest. ☎ 638520765

### ESKAINTZA

- Kamareroa behar da tabernarako. Kontratuarekin. ☎ 670250429
- Sukaldari laguntzailea eta garbitzailea behar dira. ☎ 943127334
- Mendaroko kafetegian lan egiteko sukaldaria eta sukaldari laguntzailea behar dira. ☎ 943030150
- Bitxiak, barruko erropak eta edergintzako produktuak saltzeko pertsonak behar dira. Ez da esperientziarik behar. Irabazi onak. ☎ 607824892
- Elgoibar Ikastolak HH 1. eta 2. ziklorako, LH eta DBHrako irakasle poltsa osatzeko kurrikulumak behar ditu. ☎ 943744441
- Jatetxerako kamarera behar da. ☎ 943 121262
- Igeltseritza enpresak esperientziadun mutila behar du. ☎ 605705204
- Kamareroa behar da tabernan lan egiteko. ☎ 943743196

## ABISUAK

- Giltzak aurkitu ditut Arrateko bidean. Labana bat dute zintzilikatuta. Udaltzaingoan daude.
- Giltzak aurkitu ditut San Lorentzora bidean. MNG txapita bat dute. Udaltzaingoan daude.
- Apirilaren 13an raketa bat aurkitu genuen San migeleko frontoian. ☎ 685767053
- Udaletxe atzean belarritakoa aurkitu dut. Harri berde eta zuriak ditu. ☎ 943741981
- Batxilergoko matematika klase partikularrak hartuko nituzke. ☎ 943744394
- Korrika egunean argazki kamera funda aurkitu nuen memoria txartelarekin. Udaltzaingoan dago.
- San Lorentzon, Antxola baserri inguruan Colie arrazako txakur emea azaldu da. ☎ 943743965 (Pedro)
- Udaletxe atzean belarritakoa galdu nuen hilaren 25ean. Harri berde eta zuriekin. ☎ 943351097
- 1. Batxilergoko klaseak hartuko nituzke. ☎ 627104915

# LERUN JATETXEA



## Ordutegia

Astelehenetik ostiralera
7:00etatik aurrera
Larunbatetan
8:00etatik aurrera
Igandetan
11:00etatik aurrera

- Eguneko menuak
- Asteburuetan bazkari eta afariak







- Wifi
- Ospakizunak
- Pintxoak enkarguz enpresetara eramaten ditugu




Tel.: 943 74 31 96 • Lerun, 6 (Netto Merkatalgunea)

TXARRIDUNA
HOTELA



Balio anitzeko gela:
bilkurak,...





22 logela, kafetegia
terraza, ...







Ermuaran Bide, 3 - ELGOIBAR

*reservas@hoteltxarriduna.com*

Tel.: 943 748 778 / Faxa: 943 748 779

# [ZORIONAK]



Zorionak **Unai** hilaren 18an urte bat egin zenuelako. Guraso eta Igorren partez.



Mila kilo zorion **Jone!** Eskutxua bete duzu! Segi horren jator! Familiakoen eta bereziki, Imanol eta Noraren partez.



Zorionak **Eider** zure 5. urtebetetzean familiako guztien partez. Ondo pasa eguna. Naroan partez muxu handi bat.



Zorionak **Ane** zure 6. urtebetetzean. Familiakoen, Loli eta bereziki Nerearen partez.



Zorionak **Oihan!** Ondo pasatuko zenuelakoan, muxu erraldoi bat Ikastolako laguntxoen partez.



Zorionak **Judith** hilaren 4an 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak **Paula** hilaren 24an 5 urte egingo dituzulako. Familiako guztien partez.



Zorionak **Mikel** asteartean 8 urte egingo dituzulako. Familiakoen partez.



Zorionak **Bittor!** Ondo pasa zure urtebetetzean eta gora bihotzak! Santa Ana kalekoen partez.



Zorionak gure txapeldun **Ion!** Hilaren 25ean 9 urte! Etxekoen eta bereziki, Maitane eta Janireren partez.



Zorionak **Aitor!** Apirilaren 16an 3 urte egin zenituelako. Arreba Olatz, lehengusu Ion, Asier, Unai, Garazi eta familiakoen partez.



Zorionak **Kimetz!** Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak **Elia** hilaren 22an 3 urte egin zenituelako. Ama eta aitxitxa-amamen partez.



Zorionak **Aner** 5 urte egin dituzulako. Gure mutil handi txintxoa zara. Maite zaitugu. Familiakoen partez.



Zorionak **Martin** atzo 3 urte egin zenituelako. Familiakoen eta bereziki, Jabierren partez.



Zorionak **Iker** zure 1. urtebetetzean. Gurasoen partez.



Zorionak **Oihane** hilaren 10ean 8 urte egin zenituelako. Familiakoen eta anaia Ionen partez.



Zorionak **Naroa** gaur, hilak 20, 4 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Lucia eta Jon** bihar bi urte egingo dituzulako. Muxu handi bat familiakoen partez.



Zorionak **bikote** hilaren 25ean 4 urte egingo dituzuelako. Muxu handi bana etxekoen partez.



Kaixo **bikote** heldu da zuen eguna. Zer dauka apirilaren 25ak bi lehengusinak egun berean urteak betetzeko? Marimatraka eguna! Zorionak eta ondo pasa.



Zorionak **Issbel** hilaren 18an 10 urte egin zenituelako. Familiakoen partez.



Zorionak **Miren** 12 urte egin dituzulako. Muxu handi bat etxekoen partez.



Zorionak **Maddi** sorgintxo, igandean urte bat egingo duzulako. Etxekoak.

Zorionak amama **Pepita** apirilaren 19an zure eguna izan delako. etxekoen eta bereziki, biloben partez.

# Zerbitzuak

## [ OKINDEGIA ]



22 igandea BOLINTXO

## [ FARMAZIAK ]

| | GUARDIA 24 ORDUZ |
|---|---|
| 20 | Etxeberria *(Errosario)* |
| 21 | Ibañez |
| | *(* Goizez Yudego)* |
| 22 | Ibañez |
| 23 | Bidasolo |
| 24 | Etxeberria *(Santa Ana)* |
| 25 | Yudego |
| 26 | Fernandez |
| 27 | Zabaleta |

** Beti dago guardiako farmazia Eibar/Ermua zonaldean.*

**KANPOKO FARMAZIAK**

**IBAÑEZ**
Rekalde, 1 Soraluze.
Tel: 943 75 16 38

**FERNANDEZ**
Herriko enparantza 4, Garagarza.
Tel: 943 75 61 42

**ZABALETA**
Kalebarren, 9 Soraluze.
Tel: 943 75 13 84

## [ AUTOBUSAK ]

**ELGOIBAR - DONOSTIA**
Astegunak: 7:10, 8:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 15:40, 16:00, 18:45, 20:00, 20:45
Larunbatak: 7:10, 9:00, 10:45, 13:45, 14:00, 15:10, 18:45, 20:00
Igandeak eta jaiegunak: 9:45, 10:30, 13:45, 18:45, 20:00, 20:45

**DONOSTIA - ELGOIBAR**
Astegunak: 7:00, 8:15, 9:30, 12:00, 12:30, 13:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45.
Larunbatak: 8:15, 12:00, 12:30, 15:00, 17:30, 19:30, 20:45
Igandeak eta jaiegunak: 12:30, 17:30, 19:30, 20:45.
***PESA: 902 10 12 10***

**ELGOIBAR - MENDAROKO OSPITALA**
Astegunak: 6:15, 6:40, 6:45, 7:35, 8:15, 8:45... ordu erdika. Azkena; 20:45.
Asteburuak eta jaiegunak: 7:15ean hasita, orduka. Azkena; 22:15.

**MENDAROKO OSPITALA - ELGOIBAR**
Astegunak: 6:55ean hasita, ordi erdiro. Azkena 21:55.
Asteburua eta jaiegunak: 7:55ean hasita, orduka. Azkena, 21:55.
***EUSKOTREN: 902 543 210***

## [ 20 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

**22:00 BIDEO FORUM-A**
Filmea: "Bajo el sol de la Toscana"
Kultur Etxeko Hitzaldi gelan
Hizlaria: Eskarne Larrinaga
Antolatzailea: Haizea Emakume Taldea

## [ 24 ZAPATUA ]

**11:30 IMHKO HEZIKETA ZIKLOEI BURUZKO ATE IREKIAK**
IMHko Karakate gelan

**12:00 KONTZENTRAZIOA**
Leloa: "Prozesuaren eta hauteskunde demokratikoen alde"
Plaza Handian

**14:00 BAZKARIA GAZTETXEAN**
Ondoren, "Azkaiter Pelox" bakarlariaren kontzertua
Antolatzailea: Debabarreneko Gaztetxeak



## ESKERTZA

2007ko apirilaren 11n hil zen
***Juan Jose Salcedo Yarza**ren sendiak,*
bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.





## I. URTEURRENA

2006ko apirilaren 20an, 73 urte zituela hil zen
***Manuel Kapanaga Totorika**ren*
oroimenez urteurreneko meza izango da,
larunbatean, hilak 21, arratsaldeko 19:00etan Parrokian.
Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik..



**18:00 KONTZERTUAK GAZTETXEAN**
Taldeak: "Fly Shit"; "Bhu", "K-104"; "D.A.M."
Antolatzailea: Debabarreneko Gaztetxeak

## [ 22 DOMEKIA ]

**11:00 XIV. JOSE GURRUTXAGA HAUR KROSA**
Plaza Handian
Elgoibar eta Mendaroko neska-mutilentzat
Antolatzailea: Elgoibar Ikastola

**12:30 UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA**
Herriko Antzokian
Egitaraua: Olmedo (R. Domenech); Suite en LA (J. Gomez); The Godfather saga (N. Rota); Shirim (Piet Swerts); Fiesta Tropicale (V. Lopez); Gernika (P. Sorozabal)
Zuzendaria: Jose Antonio Osoro

## [ 25 EGUAZTENA ]

**19:00 FAMILIA ETA DRGOMENPEKOTASUNAREN PREBENTZIOA**
Kultur Etxeko hitzaldi gelan
Hizlaria: Aiora Perez de San Roman, psikologoa. (Euskaraz):
Antolatzailea: Gazteria saila, herriko ikastetxeekin lankidetzan

**21:30 SAKANA-PUMORI ESPEDIZIOA**
Ikus-entzunezkoa
Udaberriko Asteazkenetan Mendi Emanaldiak
Musika Eskolako auditorioan
Hizlaria: Benantzio Irureta
Antolatzailea: Morkaiko M.E.

## [ 30 BARIXAKUA ]

**17:30 KIRIBILKA PROGRAMA**
2 urtetik 6 urtera bitarteko haurrentzat
Plaza Handian
Antolatzailea: Elgoibarko Izarra K.E.

**18:00 BERTSO ANTZERKIA**
Izenburua: "1,2,3, ...Inaxito"
Taldea: Trikuharri
Herriko Antzokian
Sarrerak salgai: Elgoibarko Izarran, 2 eurotan

## ZINE KARTELDEGIA

**ELGOIBAR** HERRIKO ANTZOKIAN




**«El Velo Pintado»**
20, barixakua: 22:15
21, zapatua: 19:30-22:15
22, domekia: 19:30-22:15
23, astelehena: 21:30
**«Fieras del futbol club. El ataque de las vanpiresas»**
22, domekia: 16:30
**«Tropical Malady» (Z.K.)**
26, eguena: 21:30

**EIBAR,** UNZAGA
**«El numero 23»**
20, barixakua: 19:30-22:15
21, zapatua: 17:00-19:30-22:15
22, domekia: 17:00-19:30-22:15
23, astelehena: 19:30-22:15
24, martitzena: 19:30-22:15
25, eguaztena: 19:30-22:15

BARRENek ez du gerta litezkeen emanaldien aldaketen erantzukizunik.

## SINOPSIAK

### «El Velo Pintado»



Zuzendaria: John Curran
Antzezleak: Naomi Watts, Edward Norton.
Aurreko mendeko 20. Hamarkadan girotutako amodiozko istorioa da "El Velo Pintado". Walter, erdi mailako medikua da eta Kitty, berriz, goi mailako gaztea. Ingelesak dira biak eta ezkondu ondoren Shangaira doaz bizitzera. Hiri exotiko honetan beste gizon batetaz maiteminduko da Kitty. Walter iruzurraz jabetzen denean, mendekuz, Txina barrualdean galduta dagoen herrixka batean eskaini dioten lana onartuko du. Gaixotasun hilgarri eta kutsagarri batek hartua dauka herria.

### «Tropical Malady» (Z.K.)

Zuzendaria: Apichatpong Weerasethakul.
Antzezleak: Sakda Kaewbuaden, Banlop Lomnoi.
Magia dario aireari. Garai zoriontsuak dira eta amodioa konplikaziorik gabeko kontua da Keng soldadu gaztearentzat eta Tong nekazari gaztearentzat. Gau eta egunak atseginak dira, leunak. Harik eta egun batez, gizon baten desagerpenaren ondoren, behiak bata bestearen atzetik misteriotsuko hiltzen hasiko diren arte. Inguruko legenden arabera gizon bat beste izaki batetan bihur daiteke. Keng oihanaren bihotzean sartuko da mitoaren atzean dagoen egiaren bila.



**1979**. urteko erretratu zahar hau **Xabier Eizagirrek** laga digu. Errosario kaleko jaietan ateratako argazkia da. Pilota partiduak izaten dira Errosario jaietako ekintzarik garrantzitsuenetarikoak, eta lehen ere, halaxe izaten zen. Jende mordoa biltzen zen Plaza Handian herritarrak animatzeko. Argazkian ikusten den bezala, jendez gainezka dago Plaza Handia. Egun honetan Eizagirre eta Badiola izan ziren garaileak, Liberto Medina eta Julio Urbiolaren kontra, 22 eta 13 irabazi ostean. Gogora ditzagun zein diren erretratuan agertzen direnak:

Ezkerretik eskumara: **Honorio Fernanez (†), (saria ematen), Fernando Eizagirre eta Inazio Badiola (†).**


ZEZEN-BIDE
AUTO ESKOLA
Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!
Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!
ORDUTEGIA
10:00etatik-12:30era
15:00etatik-20:30era
San Frantzisko, 43 - 1. solairua
Tel. 943 742 720
20870 ELGOIBAR
Ego Gain, 4 behea
(San Andres pasealekutik)
Tel. 943 203 445 - 20600 EIBAR


MAXI Mes OPEL
ZAFIRA
Opel Zafira.
Magultasuna ez da inoiz izan hain dibertigarria.
Giauto
www.giauto.es
clientes@giauto.es
salmentak: 902 345 123
tailerra: 902 345 125
ELGOIBAR
Olaso 25
EIBAR
Otaola 27
ANOETA-TOLOSA
Benta-Aldea Ind. 3
ARRASATE
San Andres 10D
BERGARA
Olabarrena
OLABERRIA
Karobi Ind.
OPEL

# LA SALLE - AZITAIN IKASTETXEAK

**2007-2008 IKASTURTERAKO HONAKOA ESKAINTZEN DU:**

## BATXILERGOAK [A eta D]

**GIZARTE ZIENTZIAK**
**OSASUN ZIENTZIAK**
**ZIENTIFIKO-TEKNIKOA**

**Etengabeko Jarduna**



***Badugu ikasteko leku bat zuretzat!***

**APIRILAREN 23tik MAIATZAREN 4ra**

**DEITU 943 121 698 - 943 202 505 Telefonoetara**

**www.lasalle.es/eibarlasalle**